



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

18/07/23

### **Bizkaiko Foru Aldundiak ETEL-LILE Txostena aurkeztu dau Batzarretako taldeen aurrean**

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak eta José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, “Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakunde maila guztien eskumen propioen eta finantzaketaren azterketa orokorraren” ondorioak azaldu ditue gaur goizean Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean. ETEL-LILE (Euskadiko Toki Erakundeen Legea) txostena izenagaz be ezagutzen da.

Eusko Jaurlaritzako, hiru Foru Aldundietako eta EUDELeke ordezkariak osatutako lan taldeak aurrera eroandako azterlanak, erakundeetako hiru mailen “finkatutako diru-sarreraren eta gastuen ganeko datuak ditu”, “2015eko ekitaldian abiauta”, Bengoetxeak azaldu dauenez. Iruarrizagak esan dauenez, dokumentu horrek helburu bikotxa dauka. Alde batetik, “Euskal Administrazioaren gastu publikoaren banaketa egokia ziurtatzea” eta, bestetik, “EAEko toki erakundeek, euren eskumenen barruko jarduerak aurrera eroan ahal izateko eta gauzatzeko beharrezkoa dan finantzaketea daukiela bermatzea”.

Azterlan horrek jasoten dituan ondorioen artean, Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, “EAEko toki erakunde bakoitzaren finantzaketarako gaitasuna oso anitza dan arren, maila indibidualean, orokorrean, euren eskumenak aurrera eroan ahal izateko finantzaketa egokia daukiela” azpimarratu gura izan dau, “udal ordenantza fiskaletan onetsitako grabamen motak eta batez besteko tarifak” kontuan izanda.

Halanda be, baliabideei jagokenez, Iruarrizagak azterlanaren beste ondorio bat azpimarratu gura izan dau: “Foru Aldundiek, araubide komuneko legedia apliketearen ondorioz jagokena baino baliabide maila altuagoa bermatu dabe euren Lurraldeetako udalerrietarako, orokorrean”.

Holan, txostenak azaltzen dauenez, Lurralde Historiko bakoitzak bere baliabideen ehuneko desbardina bideratzen dau bertako toki erakundeetara, “beti be egungo Ekarpenen Legean gomendatutako gitxieneko mailea betez”. Horri jagokenez, etorkizuneko Ekarpenen Legeak, alde batetik, “gitxieneko ehuneko bardina zehaztu beharko dau hiru Lurralde Historikoetarako” eta, bestetik, toki erakundeen artean baliabideak banatzeko erespide homogeenok sartu beharko ditu.

Azterlanak, Ekarpenen Lege barria diseinetako emoten dituan aholkuen artean, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Ez Ohiko Funtzari emondako kopurua baliabideen banaketarako eredian sartzeari dago; eta Gizarte arloko Preminetarako Laguntzak eta udal titulartasuneko Musika Irakaskuntzako Ikastetxeak eta udal euskaltegiak finantzetako ETEL-LILEn aurreikusitako araubide espezifikoaren arabera arautzen jarraitzea.

EH Bilduko Arantza Urkaregik, 2015eko datuak ekitaldi honetatara estrapoletearen inguruan planteau dauen zalantzaren aurrean, José Rubí Ogasun eta Finantza Saileko Idazkari Orokor Teknikoak azaldu dauenez, 2015eko datuak –ETEL-LILE indarrean sartu baino urtebete lehenagokoak– egokiak ziran daborduko, eta ordutik holan jarraitzea bermatu dau ETEL-LILEk. Hori dala eta, gaur egun baliozkoak dira. Horrez gain, Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, datu zehatzagoak emoteko egindako eskariari erantzunez, izaera orokorra daukan txostena dala azaldu dau Iruarrizagak. Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak adierazo dauenez, bere taldearen eretxiz beharrezkoa da koefiziente bertikala aldatzea, “udalei eta aldundiei fintzatziazino gehiago emoteko”. Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, bere aldetik, irakurri eta geroago balorauko dauela esan dau.

Ekain Rico bozeroale sozialistak “eskumenen banaketa eraginkorragoari ekiteko beharraren eta euskal aginte publikoen berrantolaketaren” ganeko gogoatea egin behar dala eta “herritarren eta zerbitzu publikoen eskubideei” erantzun behar jakela esan dau. Ildo berean, Jon Atutxa bozeroale jeltzaleak, “erradiografia hori, etorkizunari begira jarteko maila instituzional baxoan zelan gagozan ikusi ahal izateko oso tresna baliotsua izan behar dala” esan dau.

## IBILGAILU OFIZIALAK

Ibone Bengoetxea Foru diputatuak, oraingo honetan Talde Popularrak eskatuta, landu dauen beste gaitako bat, Aldundiko goi karguei esleitutako ibilgailuek egiten dituen kilometroen eta horren justifikazioaren eta kontrolaren ganekoa izan da. Bozeroale popularrak kilometroak kontrolatuko prozedura ezarteko eskatu deutso Diputatu andreari. Aldundiko arduradunak, modu laburrean, ibilgailuak “egitea jagokuzan egitekoakaz bat datorren proportzioan” erabilten dirala eta kilometro kopurua ez dala “proportziotik ganekoa” adierazo dau.

## CÓDIGO 10

Modu berean, eta oraingo honetan Elena Unzueta Iraunkortasun eta Baliabide Naturaleko Foru Diputatuak lagunduta, Ibone Bengoetxea Foru diputatuak, kanpoko erasoen prebentziorako Código 10 neurriagaz erlazioz, barriro esan dau “ez dala ezelango prebentzino zerbitzurik bertan behera itzi, aldatu dan gauza bakarra deia jasoten daben personak izan dirala, lehen baino baliabide gehiagogaz eta ordutegi berberagaz”. Talde Mistoak planteau dauen agerraldi eskaria, hainbat sindikatuk CODIGO 10 izenekoaren inguruan aurkeztu daben salaketan eta “Aldundiak prebentzinozko neurria barriro martxan jarteko errazoietan” oinarritzen zan. Horri jagokonez, ez dauela ezelango salaketarik jaso be esan dau Bengoetxeak.

## ZAINTZAILEEN ESTATUTUA

Batzordearen gaurko saioan Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatua be egon da, Ahaldu Nagusiak Zaintzaileen Estatutuaren garapen prozesuan daukan inplikazioaren eta estatutu hori gauzatzeko egin diran hartu-emonen ganean Podemos Bizkaia taldeak egin dauen galderari erantzuteko. Aldundiko arduradunak argitu dauenez, guztiaren arduraduna bere saila izan dan arren, proiektu “estrategikoa” danez, “Ahaldu Nagusiaren zuzendaritzapean” egin da. Kanpoko hartu-emonei jagokonez, hainbat foro nabarmendu ditu, Bizkaiko Adinekoen Kontsejua eta Alkarrizketa Zibilerako Mahaia,

beste batzuen artean, eta baita Bizkaiko Adinekoen Kontsejuaren batzorde baten ekarpena.

#### ALDUNDIKO PLANEN ETA GARBIKETA SEKTOREAREN EBALUAZINOA

Eguneko gai zerrendea Ibone Bengoetxea Foru diputatuari zuzendutako ahozko erantzun-eske bigaz bukatu da. Lehenengoan, Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak bere interesa erakutsi dau, jakiteko Foru Aldundiko plan eta programa batzuek zergaitik ez daukien ebaluazinarako eta kontrolerako dokumenturik erabilgarri Bizkaia Gardena Atarian. Horri jagokonez, Bengoetxeak sail bakotxaren erabagia dala erantzun dau.

Bukatzeko, Podemos Bizkaiako Josean Elgezabalek, Bizkaiko Foru Aldundiko zentroetako garbiketaren sektoreko negoziazioen blokeoagaz bukatzeko Aldundiak egindakoaren ganean galdetu dau. Bengoetxeak adierazo dauenez, gatazkea hasi zanetik bitartekaritza lana egin da; sektoreko beharginak hartzeaz gain, egoerea desblokeetako beharginakaz egin behar diran bilera guztiak egiteko eskatu jako Garbialdi enpresari.

NOTA DE PRENSA

23/07/18

## **La Diputación Foral de Bizkaia presenta el Informe LILE a los grupos junteros**

La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, y el Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, Jose María Iruarrizaga, han dado a conocer esta mañana en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia, las conclusiones del “Análisis general de las competencias propias y de la financiación de los distintos niveles institucionales de la Comunidad Autónoma de Euskadi”, también conocido como Informe LILE (Ley de Instituciones Locales de Euskadi).

Un estudio desarrollado por un grupo de trabajo formado por representantes del Gobierno Vasco, de las tres Diputaciones Forales y EUDEL, que “contiene datos sobre ingresos y gastos consolidados” de los tres niveles institucionales “que parten del ejercicio 2015”, tal y como ha explicado Bengoetxea. Según ha manifestado Iruarrizaga, este documento persigue un doble objetivo. Por un lado “asegurar una distribución adecuada del gasto público en la Administración vasca”, y por otro lado, “garantizar que las entidades locales de la CAE cuenten con la financiación adecuada para el desarrollo y ejecución de su acervo competencial”.

Entre las conclusiones que este análisis recoge, el Diputado Foral de Hacienda ha querido destacar el hecho de que “si bien la capacidad financiera de cada una de las instituciones locales de la CAE es muy diversa a nivel individual, éstas en su conjunto cuentan con la financiación adecuada para el desarrollo de sus competencias”. De igual manera los autores del informe constatan que las entidades locales “tienen un cierto recorrido fiscal que les permitiría incrementar su recaudación”, teniendo en cuenta “los tipos de gravamen y tarifas medias aprobadas en las ordenanzas fiscales municipales”.

No obstante en lo que a los recursos se refiere, Iruarrizaga ha querido señalar otra de las conclusiones del análisis: “Las Diputaciones Forales han garantizado para el conjunto de los municipios de sus Territorios un nivel de recursos superior al que corresponde por aplicación de la legislación de régimen común”.

En este sentido el informe explica que cada Territorio Histórico destina a sus entidades locales un porcentaje diferente de los recursos disponibles, “siempre cumpliendo el nivel mínimo recomendado en la actual Ley de Aportaciones”. A este respecto la futura Ley de Aportaciones deberá, por un lado, “determinar un porcentaje mínimo idéntico para los tres Territorios Históricos”, y por otro, incluir criterios homogéneos para el reparto de recursos entre las entidades locales.

Entre las recomendaciones que este estudio realiza de cara a diseñar una nueva Ley de Aportaciones, está la de incorporar la cantidad aportada al Fondo Extraordinario de Servicios Sociales por el Gobierno Vasco al modelo de distribución de recursos; y la de seguir rigiéndose por sus regímenes específicos previstos en la LILE las transferencias destinadas a financiar las Ayudas de Emergencia Social, y las destinadas a financiar los Centros de Enseñanza Musical de titularidad municipal y los euskaltegis municipales

Ante una duda planteada por Arantza Urkaregi de EH Bildu, sobre si los datos de 2015 son extrapolables a este ejercicio, José Rubí, Secretario General Técnico del Departamento de Hacienda y Finanzas, ha explicado que los datos en 2015 – un año antes de que entrara en vigor la LILE- ya eran adecuados y la LILE ha garantizado desde entonces que así fuera, por lo que son válidos hoy en día. Asimismo, en respuesta a una petición de la apoderada de Podemos Bizkaia Eneritz de Madariaga de arrojar datos más concretos, Iruarrizaga ha explicado que éste se trata de un informe de carácter general. El portavoz de Grupo Popular, Javier Ruiz, ha expresado la necesidad, en opinión de su grupo, de modificar el coeficiente vertical “para dotar de más financiación a ayuntamientos y diputaciones”. Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Mixto, por su parte ha prometido leerlo para valorar más adelante.

El portavoz socialista, Ekain Rico, ha instado a reflexionar acerca de “la necesidad de abordar una distribución competencial más eficaz y una reordenación de los poderes públicos vascos” y atender “los derechos de la ciudadanía y los servicios públicos”. En la misma línea el portavoz nacionalista Jon Atutxa, ha manifestado que “esta radiografía tiene que constituir una herramienta muy valiosa para ver cómo estamos cada nivel institucional para proyectarnos al futuro”.

## VEHÍCULOS OFICIALES

Otro de los asuntos tratados por la Diputada Foral Ibone Bengoetxea, esta vez a petición del Grupo Popular, ha sido sobre el kilometraje recorrido por los vehículos adscritos a los altos cargos forales, así como su justificación y control. El portavoz popular ha instado a la Diputada a establecer un procedimiento de control del kilometraje. La responsable foral brevemente ha asegurado que los vehículos se utilizan de manera “proporcionada con las funciones que nos toca realizar” entendiendo que el kilometraje no es “desproporcionado”.

## CÓDIGO 10

De igual manera, y esta vez acompañada por la Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural Elena Unzueta, la Diputada Foral Ibone Bengoetxea ha vuelto a reiterar, en relación a la medida de prevención de ataques externos Código 10, que “no se ha suspendido ningún servicio preventivo, lo único que han cambiado son las personas que atienden la llamada, con más medios que antes y con el mismo horario”. La petición de comparecencia planteada por el Grupo Mixto se basaba en una denuncia presentada por varios sindicatos respecto al llamado CODIGO 10 y “las razones de la negativa foral del restablecimiento de la medida preventiva”. En este sentido, Bengoetxea también ha manifestado no haber recibido denuncia alguna.

## ESTATUTO DE PERSONAS CUIDADORAS

La sesión parlamentaria de hoy ha contado también con la presencia de la Diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, quién ha respondido a una cuestión de Podemos Bizkaia sobre la implicación del Diputado General y sobre los contactos realizados para su elaboración del Estatuto de Personas Cuidadoras. La responsable foral ha aclarado que, si bien su departamento ha estado a cargo de todo, al ser un proyecto “estratégico” se ha realizado “bajo la dirección del Diputado General”. En lo que a los contactos externos se refiere, ha puesto en valor foros como el Consejo de Personas Mayores de Bizkaia y la

Mesa de Diálogo Civil, o las aportaciones de una de las comisiones del Consejo de Personas Mayores de Bizkaia.

#### EVALUACIÓN DE PLANES Y SECTOR DE LIMPIEZA DE LA DIPUTACIÓN

El orden del día ha finalizado con dos preguntas orales dirigidas a la Diputada Foral Ibone Bengoetxea. En la primera, la apoderada de EH Bildu Arantza Urkaregi, se ha interesado sobre porqué algunos planes y programas de la Diputación Foral no tienen disponible un documento de evaluación y control en la página web de Transparencia. A este respecto, Bengoetxea ha respondido que ésta se trata de una decisión de cada departamento.

Por último, Josean Elgezabal de Podemos Bizkaia ha preguntado sobre el papel de la institución foral para acabar con el bloqueo de las negociaciones del sector de limpieza de centros de la Diputación Foral de Bizkaia. Bengoetxea ha manifestado que desde el comienzo del conflicto ha realizado una labor de mediación; además de recibir a los y las trabajadoras del sector, ha instado a la empresa Garbaldi a mantener cuantas reuniones sea necesarias con los y las trabajadoras para desbloquear la situación.